

País Vasco / Euskera

Álava Guipúzcoa Vizcaya Euskera

Consulte el estado del Tráfico y del Tiempo para estos días >>



Euskera



HEZKUNTZA
ETA KULTURAREN
DEPARTAMENTUA
DEPARTAMENTO DE POLÍTICA

HIZKUNTZA PROZESAMENDUA

Eneko Agirre EHUko irakasleak Google Research Awards sarietako bat jaso du

Menéalo

LO MÁS LEÍDO

europa **press**



EHU

Actualizado 2016/03/18 12:02:56 CET

BILBO, 18 (EUROPA PRESS)

Eneko Agirre Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Informatika Fakultateko Lengoaia eta Sistema Informatikoak Saileko irakasle eta **IXA** ikerketa taldeko kideak **Google** konpainiak urtero ematen dituen **Google Research Awards** ikerketa sarietako bat lortu du, eta 50.000 dolarreko diru laguntza jasoko du, **hitzen eta kontzeptuen hizkuntzen arteko esanahiaren irudikapenari buruzko ikerketa** baterako. Ikerketa egiteko, Aitor Soroa irakaslearen, Oier Lopez de la Calle ikertzailearen eta Josu Goikoetxea doktorego ikaslearen laguntza izan du Agirrek.

EHUK jakinarazi duenez, Google konpainiak hamar sari eman ditu hizkuntza prozesamenduari alorrean eta, hala, Agirrek ez ezik, saria eraman dute Harvardeko, Berkeleyko, Edinburgoko eta Washingtoneko unibertsitateetako ikertzaileek ere, besteak beste. Guztira, Googlek 151 proposamen saritu ditu (informatikaren 18 esparrutako 950 hautagairen artean), 55 herrialdeetako 350 unibertsitatek bidalitakoak.

Horrela, Eneko Agirre EHUko irakasleak 50.000 dolar jasoko ditu "Learning Interlingual Representations of Words and Concepts" ikerketarako, hitzen eta on line kontzeptuen hizkuntza arteko esanahia azter dezan.

Gaur egun, itzulpen automatikoen edo sareko bilaketa motorren arazoa hitzen

- 1 El guionista de los
carrera presidenc
- 2 V de Vendetta cur
que (quizá) no sal
- 3 El Gobierno convc
de Policía y 1.734
- 4 Día Mundial del Si
sueño es de calid
- 5 La muerte más vi
tronos... pudo hat
- 6 El Gobierno aprue
6.307 plazas nuev
- 7 La UE cierra la ofe
deportar a los refi
- 8 Lula Da Silva hace
rico roba, se hace
- 9 Listeriosis: intoxic
capacidad mortife
- 10 Horario y dónde
cuartos de fina

Hoy | Una semana

VÍDEOS DE



Iglesias recalca que Errejón "no está ausente"



¿Te falta espacio en tu iPhone? Te ayudamos a liberarlo

esanahiari erreparatu gabe. Alabaina, Googlek saritutako lanari esker, baliteke hori nabarmen hobetzea.

Agirrek azaldu duenez, "ikerketa honen helburua hitzen esanahia irudikatzea da, hau da, jakitea bi hitzen esanahiak noiz dauden lotuta hizkuntza batean edo hizkuntza desberdinetan. Bere hitzetan, "hiztegi bat eskuetan eduki eta zein hitzek duten esanahi antzekoa eta zeinek ez jakitea bezala litzateke".

Esate baterako, Agirrek azaldu duenez, bide emango luke jakiteko 'banku' hitzaren esanahia 'aurrezki kutxa' eta 'aulki' hitzenaren antzekoa dela, zer esan nahi den, baina 'astelehen' edo 'katu' hitzenaren desberdina. "Azken batean, guk hitz baten esanahi desberdinak irudikatzen ditugu, eta bereiz dezakegu 'banku' hitzaren zentzu batek 'aurrezki kutxa'-rekin eta besteak 'aulki'-rekin duela zerikusia, baina ez alderantziz", azaldu du.

Gainera, aurkezturiko proposamena gai da hainbat hizkuntzatarako hitzen esanahiak espazio bakar batean irudikatzeke, eta, "horri esker, jakin ahal izango da 'banku' hitzaren zentzu bat ingeleseko 'bank' hitzaren eta euskarazko 'kutxa' hitzaren antzekoa dela, eta beste zentzua 'chair' eta 'aulki' hitzen antzekoa, baina bi zentzu horietako bat ere ez dela 'astelehen', 'monday', 'katu' edo 'cat' hitzen antzekoa".


METODO MATEMATIKOAK

Prozesua gauzatzeko, irudikapen hori ikasi behar da agiri mordo batean oinarrituta, adimen artifizialaren metodo matematikoak baliatuz. Irudikapena ikasitakoan, sistemak datu basean begiratzen du ea zein beste hitzen antzekoa den bilatu edo itzuli nahi den hitza, eta, esanahiaren arabera, hitz hori duten dokumentuak erakusten ditu, nahiz eta zehazki ez izan idatzi dugun hitz berbera.

Horrez gain, metodo hau edozein hizkuntzatan ezar daiteke. Dena dela, ikerketan hiru hizkuntza hartu dira ardatz: gaztelania, euskara eta ingelesa. "Guk darabilgun aplikazio informatikoa erabat automatikoa da, eta, horri esker, erabiltzen dugun edozein hizkuntzatarako irudikapenak ikas ditzake", gaineratu du.

Metodo mota horiei eusten dieten metodoak dira Eneko Agirrek EHUko Donostiako Informatika Fakultateko "Language Analysis and Processing" masterrean ematen duen ikastaroaren oinarria.

Menéalo



Te recomendamos

recomendado por



Cinco consejos rápidos para mantener tu móvil Android limpio y optimizado



Begoña Villacís responde al edil del PP que la llama "fondona": "No es cuestión de tallas, es cuestión de dar la talla"



El secretario general del PP de Galapagar llama "fondona" a Villacís (C's) en twitter



Patrocinado

Caso Biondo: la criminóloga habla del "autor identificado" del "brutal asesinato"

[Informalia.es](#)



Patrocinado

Consejos para elegir la crema que mejor se adapte a tu piel

[Glamour.es para Biotherm](#)



Patrocinado

5 trucos para aprender cualquier idioma de 2 chicos que hablan 11

[Babbel](#)



Patrocinado

10 cosas que no sabías de Pablo Iglesias

[Inversor Global](#)



Patrocinado

10 cosas que debes hacer para evitar que te roben el coche

[Autobild.es](#)



Patrocinado

La revolución del mundo de las gafas graduadas

[El Mundo](#)

Y además



Hasta el 21 de marzo 100 Alfa Romeos con hasta 10.000€ de descuento

Alfa Romeo Cool Days



Cree y configure los servicios de Azure con su intuitivo portal basado en Web

Pruebe Microsoft Azure



Este vídeo te enseña a ganar 4500 € al mes con PST. Mercado de riesgo

¿Quieres más dinero?



Tu Coche a
Tu Moto a
Calcula aquí
FÉNIX DIREC



Pide Presupuestos y logra el Hogar de tus Sueños con los Mejores Profesionales.

Consigue Presupuestos!



Descarga gratis la auténtica tragaperras online!

Todoslots



Ortodoncia desde 36,35€ al mes en 60 cuotas. Pide tu cita ahora.

Confía en el MétodoDentix



Belleza, Cu
Corporal pa
para tu bier
Comprar en

La actualidad más visitada en **europa press**

SERIES & TV

El guionista de los Simpson que predijo la carrera presidencial de Donald Trump: "Era un aviso para EE.UU"

CINE

V de Vendetta cumple 10 años: 10 cosas que (quizá) no sabías del manifiesto antisistema

NACIONAL

El Gobierno convoca plazas de Policía y Civil

europa **press**

Información

Contacto
Aviso legal
Catálogo

Enlaces

Últimas noticias
Liga BBVA 2015-16
Prima de Riesgo
Servicios
Estado del tiempo
Estado del tráfico
Horóscopo
Recetas

Otros formatos

Edición para Kindle
Kiosko Google Play

Redes Sociales

Facebook
Twitter
Google Plus
Youtube

Portal de actualidad y noticias de la Agencia Europa Press. Publicación digital auditada por OJD.

© 2016 Europa Press. Está expresamente prohibida la redistribución y la redifusión de todo o parte de los contenidos de esta web sin su previo y expreso consentimiento.